


6 mantangorri

# CO AZOKA

## LIBURUAK



**Izenburua:** Spook School.  
**Egilea:** Pete Johnson. **Marrazkiak:** Tom Percival. **Itzulpena:** Miren Ibarluzea. **Orrialde kopurua:** 125 orrialde. **Argitaletxea:** Declée.

### Zein da mamuen helburua? Gaiztoak al dira?

Ez, ez, inola ere ez. Gizakiak bel-durtzen dituzten mamuak geldiaztea da beraien misio nagusia. Euren eskolako legeetako bat da gizakien aurrean ezin direla mamu moduan agertu. Eta misioetan hori egiten dute: lurrean jendea bel-durtzen ari den munstroa garaitzen saiatzen dira. Guztiek dituzte beren sekretuak, eta munstroek ere bai; sekretu horiek azaleratuko dituzte misioen amaieran, eta, hala, arazoa konponduko dute.

### Nola lortzen dituzte misioetarako ahalmenak?

Asko kontzentratu behar dute, asko pentsatu behar dute. Adibidez, itxuraldatzeko, asko kontzentratu eta itxuraldatuko diren objektu horretan pentsatu behar dute. Saitu behar dute objektu hori ahalik eta argien ikusten. Hitz magiko modukoak ere badituzte, eta, lortu nahi duten hori lortu ahal izateko, esan egin behar dituzte. Saitututa eta kontzentrazio handiz nahi dutena lor daitekeela erakusten du.

Horrez gain, ahalmenak garatzeko eskolak jaso behar dituzte. Charliek berez baditu ahalmen batzuk, baina ahalmen horiek garatu egin behar ditu, eta hori eskolak egiten dute.

Eskolara joatea ez da beharrakoa mamuentzat, baina bai gomendagarria. Eskolan ahalmenak nola erabili beharko lituzketen erakusten dietelako.

### Liburuak barre egiteko beta ematen du?

Zalantzarik gabe. Charlieren eta Lewisen abenturek umoreari ere tarteaz uzten diote. Marrazki dibertigarriak ere baditu. Eta, horrez gain, liburuaren amaieran *Mamu irriak* izeneko pasarte bat dago gehituta. Itzultzale moduan niretzat erronka bat izan da, eta ondo pasatzeko aukera ematen du. Eta niretzat liburuaren gauza politena izan da. «Zer jaten dute mamu go-setiek? Izuzkia», hori da agertzen den hitz jokoetako bat. Liburua amaitzeko modu polita dela pentsatzen dut, zapore gozoa uzten duelako.



**U**meek jolastea dute gustuko. Hori egiteko aukera handia eman diote Charlie ri, eta, jolasteaz gain, bihurrikeriak ere egin ditu Spook School bildumako bi liburutan. Oraingoz, bilduma osoko bi liburu euskaratu ditu Miren Ibarluzeak. Baina mamuen eskolako istorio dibertigarriekin beste hainbeste liburu ere badaude itzulgabe. Barre egin eta ondo pasatzeko aukera ederra ematen dute mamuen abenturek.

### Charlie da Spook School bildumako protagonista. Haur bat da, baina ez nolanahikoa.

Spook School izenburuak mamu eskola esan nahi du. Charlie mutiko bihurri bat da, jolastea asko gustatzen zaiona. Eta berak hasieran ez badaki ere, mamua da. Lewis izeneko mamu batek esaten dio hori. Eta berarekin eskolara eramatzen du. Eskola izugarri gustatzen zaio, ez baitu aspertzeko aukerarik izaten han.

### Eskola gustuko duela esan duzu, eta ez dela aspergarria; zergatik?

Charlieri ez zitzaison ohiko eskolara joatea gustatzen, baina hau bestelakoa da. Mamuek dituzten ahalmenak nola erabili ikasten dutela bertan: hegán egiten, desager-

tzen, gauzak mugitzen, itxuraldatzen... Eskolak mamuek hartutako etxe bat ematen du, eta, adibidez, eskolako txirrina uluak dira. Beldurdugarrria izan liteke hasiberri batentzat, baina berari dibertigarria iruditzen zaio.

Oso bihurria bada ere, mamuen gaitasunak erraz menperatzea lortuko du Charliek berehala, trebea delako. Eta, eskolako mamu onenei misio sekretuetan parte hartzeko aukera ematen dietenez, berehala proposatu diote protagonistari. Misioko buru, hala ere, Lewis laguna izango da, Charlie bihurria dela-ko eta ez direlako fio. Beraz, ezingo ditu nahi dituen bihurrikeria guztiak egin, geldiaraziko duen norbait izango duelako alboan.

### Zergatik da dibertigarria mamua izatea Charlierrezat?

Azken batean, bidea ematen dio bihurrikeriak egiteko, jolasera. Horren eraaginez, eskolan askotan arazotan sartzen da. Irakasleek esandakoari kasurik ez dio egiten, eta mamuen maisuaren bulegora maiz joan behar izaten du. Adibidez, hegán ikasi zuen lehenengo egunean gelatik kanpora joan zen hegán egitera; armiarma bat azalarazi zuen, eta handi-handi egin...

Beretzat mamua izatea jolas bat da. Eta Charliek oso ondo pasatzen du, askotan ingurukoak bel-durtzea lortzen duelako bere bihurrikeriekin.